



## **NAFARROAKO PARLAMENTUKO MAHAIARI**

EH BILDU NAFARROA parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Dabid Anaut Peñak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako **AHOZKO GALDERA** egin nahi du **OSOKO BILKURAN**, Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuaren politika gidatzen duen programa-akordioak honela dio, hitzez hitz:

Hornikuntza-sare elektrikoa, egin beharreko jarduketak eta haien plangintza eta gauzatzea xeheki aztertzea. Testuinguru horretan, Itsaso eta Deikaztelu arteko linean proiektatutako azpiegitura beharrezkoa den erabakiko da, energia husteko benetako eskaria kontuan izanik, baita azpiegiturak ingurumenean duen eragina, dagozkion udalen iritzia eta kontuan hartu beharreko gainerako gai erabakigarriak ere.

Goi-tentsioko linea igaroko litzatekeen inguruko hainbat udalek eta hainbat eragilek gai honen gaineko iritzia eman izan dute, baita beren iritzi hori Nafarroako Gobernuari azaltzeko asmoa eta gogoia adierazi ere.

2016ko maiatzaren 24an hainbat udalek prentsaurreko bat egin zuten, eta adierazi zuten Garapen Ekonomikoko Kontseilariarekin elkartu nahi zutela. Bilera eskaera erregistro bidez egin zuten, urte bereko ekainaren 2an. Bilera hori ez da egin, eta udalek ez dute erantzunik jaso.

2017ko otsailaren 16an goi-tentsioko linearen aurkako plataformak bilera eskaera publikoa egin du, oraingoan Uxue Barkos Nafarroako Gobernuaren lehendakariari.

Kontuan izanda programa-akordioak gai honen inguruan udalen iritzia kontuan izateko konpromisoa jasotzen duela, kontuan izanda herritarren aldetik ere bilera eskaera publiko bat egin dela, eta kontuan izanda akordio-programatikoaren arabera egin behar den hornikuntza-sare elektrikoaren plangintza eta azterketa xehea egiteko iritzi horiek guztiak funtsezkoak eta beharrezkoak direla,

**Zer urrats egin behar du Nafarroako Gobernuak proiektu horren inguruko azterketa xehea egiteko eta iritzi horiek guztiak kontuan izateko? Zein da Nafarroako Gobernuak bilera eskaera horiei eman behar dien erantzuna, eta zein epetan?**

Iruñean, 2017ko otsailaren.

Sin.: Dabid Anaut Peña

EH BILDU NAFARROA PARLAMENTU-TALDEA

(Traducción del escrito que lleva el número 970 de entrada en el Registro)

### **A LA MESA DEL PARLAMENTO DE NAVARRA**

Dabid Anaut Peña, parlamentario foral adscrito al Grupo Parlamentario EH Bildu Nafarroa, al amparo de lo establecido en el Reglamento de la Cámara, presenta la siguiente **PREGUNTA** para su respuesta **ORAL** ante el **PLENO** por parte del Gobierno de Navarra:

En el acuerdo programático que guía la política del Gobierno de Navarra se recoge literalmente:

«Estudio detallado de la red de suministro eléctrico, las actuaciones necesarias y su planificación y ejecución. En este marco se concluirá sobre la necesidad o no de una infraestructura como la proyectada en la línea Itsaso-Dicastillo teniendo en cuenta la demanda real de evacuación energética además de valorar el impacto ambiental que genera, la opinión de las localidades afectadas y las demás observaciones determinantes de la misma.»

Algunos municipios y agentes de la zona por la que trancurriría dicha línea de alta tensión ya se han manifestado sobre este tema, y también han manifestado su intención de trasladar su opinión al Gobierno de Navarra.

El 24 de mayo de 2016 determinados municipios ofrecieron una rueda de prensa, en la que manifestaron que querían reunirse con el Consejero de Desarrollo Económico. La solicitud de reunirse se hizo por medio del registro, con fecha de 2 de junio de 2016. La reunión no se ha celebrado, y los ayuntamientos no han recibido respuesta.

El 16 de febrero de 2017, la plataforma en contra de la línea de alta tensión ha solicitado públicamente una reunión, en esta ocasión a la Presidenta del Gobierno de Navarra Uxue Barkos.

Teniendo en cuenta que el acuerdo programático recoge el compromiso de tomar en consideración la opinión de las localidades afectadas, que los ciudadanos de las mismas han solicitado públicamente una reunión y que según el acuerdo programático todas esas opiniones son fundamentales y necesarias para llevar a cabo el estudio detallado y la planificación de la red de suministro eléctrico,

**¿Qué pasos va a dar el Gobierno de Navarra para la realización de dicho estudio detallado y para tener en cuenta todas esas opiniones? ¿Qué respuesta ha de dar el Gobierno de Navarra a las solicitudes de reunión? ¿Cuándo lo va a hacer?**

Pamplona, febrero de 2017.

Fdo.: Dabid Anaut Peña

GRUPO PARLAMENTARIO EH BILDU NAFARROA